GARILLA 2 Astartea
Bilbao, 1935

EUZKADI

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua ... 9,00 irko. iru ilez
Bilbao'atazkua.. 11,25 " "
Idazki-itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 112,50 " "
Beldayen itunduba

XXIII urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.º | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 7.025 zenbakija

IV'GARREN EUZKADI-EGUNA

Berrogei milla notin batzartu ziran Iruña'n. Euzkadi osoko euzkotarrak aundikiro ospatu dabe euren batzar-eguna. Geure aldunen itzaldi bikañak. Txistularijen erestaldija. Zezen-tokijan dantzaketa aipagarrijak ixan ziran. "Amaya" Gayarre-antzokijan Nabartarren egun zoragarrija

Azkenez ospatu dogu Abefi-Eguna edo Euzkadi-Eguna. Pozik gatofz Iruña zarean ikusi doguzan gauzak aipafijak dirala-ko. Alderdi on eta garbirik ba-dago, geure Alderdi auxe ba-dala. ¡An ebiltzan gastedijak! Eta moskofti bat etzan agiri.

Poztasuna ,abeftzaletasuna, besterik etzan ikusi. Geure etsai dolofak ikeraz egozan. Basefiifaf gaxo ta kokolo batzuk giñalakuan egozan, baña abeftzale garanok basefiifafak ixan-afen, zaldunen antza daukogu. ¡Bai orixe!

Talua jaten kalez-kale ibiliko gintzala-ta esaten eutsien karlatafak euren jafale gaxuai. Eta belbil edefetan, dotore jantzirik ainbeste notin ikusi ebenian afituta geratu ziran.

Inguru gustijetatik jentia bildu zan: Araba zoragafijak, be, ogetamaf bat autobuses bialdu ebazan. Gora zubek! Gipuzkoa, Bizkaya, Araba eta Nabafa antxe alkaftu ziran. Alduide-aldeko batzuk, be, agufru gebazan. Alde gustijetako euzkotafak, baño gustijak alkafen antzekuak, anayak.

Igandeko jaya, anaitasunari yagokon jaya ixan zan. Oyu bat bere ez, moskoftirik bere ez. Gauza edefak ikusi doguz orain afteko Abefi-Egunetan, be, baña igandekua bijotz?bafura saftu yakun.

Napaftafak zintzo jokatu dira. Eta zer eztabe egin gero jai areik ondo-ondo gertauteko! Eundaka automobilak-eta uriratzen ziran, baña gustijentzat toki berezijak eukezan. Mendigoxale azkafak an egozan edozetarako. Etxakuz beinguan aztuko ango itzaldijak. Landaburu, Monzon, Agife eta Iruxo jaunak. Egi gofdiñak esan euskubezan. Gero dantzaketak. Leiza'kua, Luzaide'kua, Lizafa'kuak eta Lekeitio'kuak. Dantzaldi areik atseginafijak ixan yakuzan geure abefi onetan dagozan dantza-muetak ikusi gebazalako.

Baña uaf asko ba-genduzan ango jayetzaz, lenengo ixan bedi napaftafentzat. Uste genduban baño napaftaf geyago jai aretan eguan. Efibera-aldekuak eta Goi-aldekuak. Aoiz, Leiza, Elizondo, Lizafa, Tafala eta beste efi askotatik eufez abertzaliak eldu ziran.

¿Abeftzale gitxi dagola Nabafa'n? ¡Ez orixe! Orainguan ugaritu dira.

GOXALDIAN

Goxeko zortzirak-inguru ziran. Bilbao'ko bitxabalez amaikatxu automobil etofzan. Irurzun-onduan batuten gintzazan Gipuzkoa'tik etofi ziranakin. Aguf bati ta aguf bestiai, antxe anayai yagokenez bildu gintzan. Tamalez utz bat eguan: ikuñik eza!

Arin-arin Iruña'ratu gintza, Takonera-ganeko baratzetan jafi gintzan eta ufufera adi gengozan. ¡Zer zan a! Txistu-otsa, auto-zaratea, bultzi-dardarea. ¡Dana zan abestija! Leyotxubetatik bost zapi-zuri agertzen ziran. Befeun autobus-inguru etofi ei-ziran Bizkai'tik. Belbil txikijak-eta irureun gitxijenez. Gipuzkoa'tik beste ain beste edo geyago. Pelikula bat atara guraz genbiltzan bitxabal osua bete-beterik eguala. Iñufijak ibilten diran legetxe.

Baña alde areitan jente ugarijak ba-ebiltzan, Iruña'ko txaidietan gitxijago ezebilan. Gaztelu-enparantzan, Lagi-Zafa eguraztokijan milaka ikusten ziran. Txapebe okef eta asaltoko geyegi ekafi ebean gauza onerako. Basatiren batzuk Iruña'ratuko ziralakuan egozan aurki. ¡Bai zera! Iñori berba bat ezeutsoen esaten, oyurik, be etzan entzuten. Ikeratuta legetxe ebiltzan asaltoko areik. Basajaunen aldiko pertsonak aurkituko ebezalakuan zaldun eta andereño lirañakin aurkitu ziran.

ITZALDIJAK

Amaiketan zezen-tokiratu gintzan. Eguraldi berua! Iruña'ko txaide bafiz ziaf notintza ugarijak arantza joiazan. Zezen-toki gustija gonburuz eguan. Eguzki beruaren bildufi-gabe jezafi ziran emakume ta gixonak. Landaburu jauna lenengo itz-egin euskun. Arabaf anayen agufa ekafen. Pozik geratuko ziran napaftafak aren itzak entzun-ondoren. Gero Agife jauna zutik jafi zan. Euzkeraz asi yakun eta edefto itz-egin be, Alderdi'koen zintzotasuna atzaldu euskun.

Monzon'en itzak, itz berezijak. Gipuzkoa'koen agufa ekafan-ezkero antziñako bufukaldijak bururatu euskuzan. Euzkotafa alkaf anaitzat be, ezeukoen aldijetan gipuzkoafak eta napartafak gudaketa gofijak erabili ebezan. Belate, Amayur, Beotibar eta berein toki ziñaldari doguz. Baña abeftzaletasuna softu danian antziñako bufukaldijak uxatu dira. Euzkera goxua erabili ebana!

Azkenez Iruxo jauna mintzaldi gorengua egin euskun, Nabafa'ko semia danezkero beste gustijoi eskefak egin euskuzan Iruña'ra juan gintzalako. Euzko-anafasuna goraldu eban. Pozik entzun gebazan lau aldun onein itzak, labuf-labufak eta sakonak ixan ziralako. Olantxe beti egin biaf litxake. Azkenez Euzko-Abendearen Ereseřkija abestu genduban.

TXISTULARIJAK

Takonera - zelayan txistularijak batu ziran. Eunbat egozan. Gure txistulari zintzual ugaritu dira. Asko eta asko juan eziñik geratu ziran, igandia zan, ba eta bakotxaren efijan geratu biafa euken.

An bildu ziran astilea atera eutsen euren txistubari. "Aguf Jaunak", Zubizafeta'ren soñu edefagaz asi ziran. Guridi'ren "Alborada"; Monzon'en "minuetto" "Alborada de Segura"; Urteaga'ren "Contrapás" eta Olazaran'en "Biribilketa" erestaldi txukuna emon euskuben.

Notintza andi eta gaitzak ixan ziran txistulari jatofai entzuten. Txalo ugarijak entzun ebezan!

BAZKAL-ORDUBA

Iruña'ko jatetxiak-eta ondo betetu ziran! Iñun ezeguan tokirik. Beste batzuk albo efijetara juan ziran. Bilaba'ra, Burlada'ra eta abaf. Ifufi-onduetan bazkari onak egin ziran, bestela esan begisku Donosti'ko jaupari bafek. ¡A zelako Cuba'ko kañea edan eban zenbatzuk!

Kalez-kale milak eta milak agiri ziran. Akeitetxietan jaflekurik bere ez. Zoritxafez merke-merkiak etziran akeitak-eta. Geitxubegi kenduten euskuben iñuzente-aurpegirik, be, eztaukogun-afen. Plaza del Castillo dalakuan ikusketa zoragafija eguan afatsaldeko ordubijetatik laurak-afte.

DANTZALDIJAK

Afatsaldeko laurak eta erdijetan asi ziran dantzaketak. ¡Zer zan a! Jentia aufez zezen-tokiratu zan. Eguraldie edefa zan, ¿bai? eta an bildu ziran emakume ta gixonezkuak mordo zoragafija egijen. Amabost txistulari agufrik ebezala despile liraña egin eben. Lenengo Iruña'ko mutikotxubak eta poxpoliñak; gero ezpatadantzarijak; ufengo Leitza, Luzaide, Lesaka, Arizkun, Lizafa eta Lekeitio'ko dantzarijak. Eta azkenez euzko-ikufiña. An entzun txalo-otsak. ¡Geure ikufin mafia agertu zanian, bijotzak piztu ziran.

POXPOLIÑAK-ETA

Lenengo agertu yakuzan Iruña'ko poxpoliñak. Aoiz, Lietza eta Tafala'ko pox-Aba agufgafijaren "Gimnasia rítmica" polintxu lirañak, be, an ziran. Olazaran deritxu dantzea ikusi genduban. Lenengoz ikusi, be, ta poztu gintzan. Iruña'ko mutiko lirañak an egozan urdiñez jantzila, poxpolintxubak, ostera emeko gorularijen antzean. Olazaran Aba'k gauza edefa egin dausku dantza oreikin. Atsegingafijak eta osasungafijak. Txalo ugarijak entzun ebezan.

LEIZA'KUAK

¿Leitza? ¿Nok esan dau abeftzale gitxi dirala-edo? An agertu ziran neskatil lirañak eta mofosko jatofak eztira makalak. "Ingurutxo" dantzea orain-afte be ikusijak gafuzu, baña txalo asko kendu euskubezan eskutik Leitza'ko dantzari trebiak. Pozik egon daitekez an egozan notiñak zerubetan egon ziralako.

LIZAFA, LESAKA, LEKEITIO-ETA.

Imaz'ko Pofusaldea! ¿Nunguak ziran areik gaste areik? ¡Donostia'rak! Anka-ariñak dira beintzat! Eta txikitxu a! A zelako txaluak entzun ziran. Lizafa'koen "Lafain-dantza" be, ikuskafija da. Ezkeban uste olako dantzak zirala Lizafa'n, baña igandian afarenka gengozan. Neska-mutil azkafak agertu yakuzan eta dantzaketa aipagafijak egin ebezan.

Lesaka'ko mutilak be euren dantza txukunai kia atera eutsen. Lekeitio'ko "Kaxafenka" edefto dantzatu eben Urkidi adizkidiak. Mutil azkaf ofek gora bera gordiñak egin ebazan. Arizkun eta Luzaide'ko dantzarijak. Oneitzat zeozer idatziko dogu, mutil areik meresi dabelako. Gustijak emen Bilbao'n ikusi gura geunkez. ¿Teatrua diñogu? Ofeik lako teatrorik eztago. Baztan'go mutil-dantza edefari jasa emon eutsoen gaste areik.

Azkenez bosteun ezpatadantzari agertu yakuzan. Safi ikusi dogu Bizkai'ko ezpatadantzea, baña igandian begiko ixan yaku, batez-be Iruña'zafean ixan zalako.

EUZKO-JOLASA

Euzko-jolasaldija. Gastedija antxe pozik ibili zan. Erespatza eta itxistularijak soñubai kia ateraten eutsen eta gastedijak etziran nekatu. ¡Bai zera!

"AMAYA"

Donostia'ko Euzko - Abesbatza'k egin dauzan gauzak edefto egiñak dira. Eres-

Euzko dantzarijak

Argazki txukun onetan ikusi daikeguz Iruña'ko Poxpolin lirañak eta mutiko jatofak. Olazaran aitaren dantzak txukunak erakusten emon euskubezan. Bost txalo entzun ziran ikuskixun ori ikust ian!

lari trebiak dira. Eta nok eztauz entzun Zabalbeaskoa aiztaen ixenak? Olaizola, Kortaxarena eta abaf. Ofein abixenak entzun ezkero, berialа igafiko dozu ikuskafija ixan zala "Amaya" operea. Notintza ugarijak bildu ziran aufegunez eta igandez opera ori ikusten.

Zorijonak egiten dautseguz Euzko-Abesbatza'kuai olako lan edefak egin daroezalako abefijafen.

AZKEN-ITZAK

Gafantzi andija ixan dau igandeko jayak. Napartafai begijak ziaf saftu yake geure abefija zer dan eta nortzuk mafe daben. Euzkadi-Eguna gertau dabenak pozik egon dafekez ondo baño obeto gauza gustijak egin dabezalako.

¡Egun andija! Bafanka-ingurubetakuak esango dabe. Ikeratu ziran ainbeste autobus-ikustian. Lau katu gintzalakuan egozan gaxuak, orixe esaten ixaten eutselako kaxike ugefduak. Baña orain euren begijakaz ikusi egin dabe egija. Aruntz juan gintzanian ixilik egozan mutikotxubak-eta, onantzian "Gora Euzkadi" oyu-egijen. Lastef igafiko dira jai ofen onurak. Ango "kofeziñua" eta garbitasuna eztira edonun ikusten. Eta olako jai batzuk biaf ziran Iruña zaf eta mafian. Kazik'ak ifota dauken uri ori olantxe gaizkatuko dogu, egure abefi onen uri edefa ixan dedin. Euzkadi bafijaren goturija. Afsei zaf arein ganian euzko-turutaen otsak entzun gura geunkez. Napartafen eskubetan dago. Lan egin begije ziñtzo-zintzo, abeftzaletasuna lanak zabaldu daroialako.

Abixenak, toki - ixenak itxorkunak

LANIAN

Lana biafezkua da: toki-ixen eta etxe-xenak bautu biaf doguz. Ori ezta naikua. ¿Zelan batuko doguz baña?

Ifaune oni labuf-labuf erantzungo dautsat.

Edesti-arazuetan lan egifeko lenago gertakixuna biaf-biafezkua da. Ta geure ele-lan au be edesti-lana da, ele-lana ixan-afen. Ofegafik edesti-lanetan zelan lan-egiten dan adirazo biaf dautzut gauf, euzkek-irakufle langilia.

Edesti-arazuetan lan-egifeko erarik afunena txaftelak dira. Beste era gustijak gauf bazteftuta dagoz. Txaftelak zertzuk dira? Txaftelak edo efderazko "fichas", itzak diñonetz, ingi-zatijak dira. Eta ez edozelako ingi zatijak, ingi gogofa.

Ingijoik andijaguak edo txikijaguak ixan daikez; ofetan eztago araurik. Bafa be txaftelok edo zurijak, ofegijak, edo orijak edo beste edozein margotakuak ixan daikez. Batobatek era ta mota askotako lanak egiten ba'dauz, edo-ta be, gai bateko era askotako lanak egiten ba-dauz ona ixango da era ta mota gustijak margo bategaz barik era ta mota bakotxa margo bakanaz erabiltia. Adibidez: ni euzkerazko arazuetan nabil. Euzkereatzazko arazuak era ta mota askotakuak dira: eliztija, elizti-edestija, itxofkunak, izpijakerea, aditza, aditz labufa, aditz bikotxa, abestijak, supifak, eta abaf; ona litzake elizti-gai afunak txartel zurijetan jaftia, elizti-edestija txaftel orijetan, itxofkunak txaftel ofegijetan, izpijakerea txartel urdiñetan, aditza txartel gofijetan, eta abaf. Txartelak egiñikuan kutxatxo baten saftuten dira agakaz jafirik.

Orañafte esan doguna txartelen azala baño ezta. Txartelak baña egin biaf dira, ta auxe lanik gatxena.

Era asko dagoz txartelak egifeko Ona emen batzuk. Adibidiakin obeto adifuko gara.

Etxepare

Linguae Vasconum Primitiae. San Sebastián, 1933.

Daut=dot.

"Gende honak bihoza daut bethiere nigafez".

Amoros gelosia. (P. 36.)

Fr. Bartolomé de Santa Teresa.

Jaungoicoaren amar aguindubeetako. I zatija.

Zu=vosotros; dozu=dozube.

"Beste gauza bategaz aituco dozu au obeto, cristinaubak". (P. 181.)

Geure arluan zelan egingo doguz txartelak? Nik onantxe gitxi gora-bera egiten dodaz.

UBARAKOA

Efijak: Uberako.

Agirijetan: Ubera. (Archivo del Ayuntamiento de Apatamonasterio: Libro de la Cofradía de San Pedro, 14-8-1682, fol. 1 directo.)

Ubeta. (Archivo del Ayuntamiento de Apatamonasterio, Libro de la Cofradía de San Pedro, ordenanza de 1705, fol. 21 directo.)

JAUNSOLO

Agirijetan: Jausolo (Archivo del Ayuntamiento de Apatamonasterio, Libro de la Cofradía de San Pedro, ordenanza de 29-5-1606, fol. 53.)

Jassolo. (Archivo del Ayuntamiento de Apatamonasterio, Libro de la Cofradía de San Pedro, fols. 53 vuelto y 54.)

Itz batzuk amaituteko. Lenen-lenen toki nai etxe-ixena gaufko agirijetan agefituten dan letz jaften da. Gero antziñako agirijetan agefituten dan letz. Nungo udaletxian edo txadonan aufkifu dan esaten da; gero zein idaztiian; udaletxian idazti ori zeinduta ba'lego (klasipikauta ba'lego) idazti aren idazpuruba jaften da ta onen ostian ingufijaren zenbakija. Zeindu barik ba'dago noberak zeindu biaf: ofetarako lenengo irakufi egiten da, gaya zein dan ikusi ta gero idazpuruba jafi. Zenbatu barik ba'leukaz ingufijak zenbatu biaf. Gero zein urtetakua dan jafi biaf da.

Onagaz naiko ixango dala uste dogu. ¡Euzkeltzaliak, lanera! Ia zegozer egiten dogun.

AGAREL.

INGI BILDEGIA
Papelería de Oria.
MORAIZ'TAR JOSEBA MIRENA
Teléfono, 154. TOLOSA

Euzkotar Umien Aldez

"Umien jakin-miña." (Oporketan.)
S. J. Alvarez Quintero.

Kristobal, Andaluzia'ko etxe aberats batiko mofoia zan, ia larogei urteduna, eta oñak aztunak zituan baña burua ondo.

Lan askotarako ta ez gutxitarako be ez ba'zegoan ere, len, etxerako mofoi ona izan zalako, bere nagusiak asko nai zioten, eta gogo ozoz zeukaten euren artean.

Gañera, Kristobal sekulakua zenduan umeai astia eman erazoteko ta umeak ondo zaitzeko, eta etxe onetan ume bi zituzten Kepatxo ta Miren, lafosa ta lirioa, olerkariak esan zuan bezela.

Afatsalde batean mutiltxo ta neskatxoen artean agortu zuten agure gizajoen, jakituri oxiña (aundi-aundia ere ez zan da). Ez baña bere eroapena, au agortu eziña zan izan ere ta.

—Zu, Kristobal, ¿zenbat izaf dira?

—Ba... gau batzuetan geyago... eta beste batzuetan gutxiago.

—Eta ¿zergaitik ori?

—¿Zergaitik? Ilargidun gabetan ez dutelako erteten danak.

—Zu, ¿ilargia ez al da izafa?

—Ez; ilargia... ilargia da.

—Eta izafak zeri lotuta daude?

—Zeari; ara galdeera modua, aizeari.

—Eta ezin al leikez erori?

—Ez ofen bilduf izan. Ara nolako zafa naizen, ni, eta ez det oraindik izafi erortzen ikusi beñepen.

—Zu, eta eguzkia nun dago?

Kristobal'ek, erten ezin izango, zan lekuren batean sartuko ete zan bildufa izan zuan, eta erantzupena ematearen ordez txistua jotzen asi zan.

—Ez al dakigu?

—Ez, zera, jakin ez. Jakingo ez det ba? (jakiña ba etzekiela).

—Zu, Kristobal, galdetu zion neskatxoak, gauza deunak oso ardura aundia eman oi zioten da, zu, nor da geyago. Aita Santua ala Efegea?

—¿Zer?

—Ia nor dan geyago, Aita Santua ala Bakálduna.

—Aita Santua.

—Efegea geyago dala esaten du Kepatxo'k ba.

—Alaxen da ta, erantzun zuan Kepatxo'k gogof, Kristobal'en jakinduriari daf-daf eragiñaz.

—Bai, euk esan dekala ta! dio Kristobal'ek eztabaidan sartu nai ezik.

—Zu, Kristobal, eta apaizak zer dira?

—Apaizak.

—Zu, Kristobal; bultzia zelan ibiltzen da?

—¿Bultzia? Ez al dezu ikusi bafuan daraman ikatza?

—Bai.

—Eta makinista?

—Baita.

—Ara of ba!... Gauzai begiratu egin, beaf zayote?

—Zu, Kristobal; poxpoluak benenua al dute?

—Zu, Kristobal· maomatafak gaiztoak al dira?

—Zu, Kristobal; zein da aundiagoa, Sevilla ala España?

—Zu, Kristobal; euria zegaitik egiten du?

—Zu, Kristobal; nork erein ditu zugatzak?

—Zu, Kristobal; zeñek du indaf geyago zezenak ala zaldiak?

—Zu, Kristobal...

—Zu, Kristobal...

Afikada bizi-na zanean, igaro zan andixek etxeko-andrea, eta umeak laztanduaz galdetu zuan

—Okefak ai dira, Kristobal? Baldin okefak ba'dira, atzera biartik ikastetxera juan beaf dute. Ez dago geyago oporketarik!

Eta Kristobal gizajoak ifi bafeka erantzun zion:

—Ai, ene etxekoandre Karmele biartik aufera ikastetxera ez ete det gero neuk juan biarko...!

Abertzaletasun euzkerearen craingiya

IV

Abenda-ele edo izkuntzari indaftsu eutsi-erazitzeak zenbaterañoko gafantzi edo inportantziya daukan. "Mistral,,'i ikasi dayogun: "Izkuntza zaitzen duan abefi lotuak —diyo— BEREKIN DAUKA Abefija'ren azkatasun-giltza".

Entzun dayogun orain beste onu edo kontzeju au. "Duparc" jakintsuari: "Ezdezute izkuntzarik edo elerik gaizkatuko (salbatuko) —diyo— abefkideai bere maitale onak izaten erakusten ezpadiozute; eta naita-nayezkoa da efijari abenda-zale zufa izaten erakustea, bere abenda-elearen maitale zuzena izan dedin. Eta gauza au, lortu edo logratu aa!-izateko, aski da Abefija'ren edestija (historia) erakustea".

Ofengatik diyo, noski, gure Lopez-Mendizabal jaunnak: "Abeftzaletasuna da euzkera gaizkatzeko (salbatzeko) biderik ziufena".

Arana-Goiri'k, beriz, erabazi zofotz au ematen digu: "Izkuntza galtzeak Abefija'ren erijotza ekafi biaf ba'digu, abeftzaletasuna bukatu dalako izango-da".

Eta euzkera, uzkutz edo erlijio zaitzale ona dala. Tolosa'ko txaunburu edo efetore agufgafija izan zan Ofkaiztegi'taf Patirki zanak (g. b.) bere itz oafgafi abekin adiyerazten digu: "Euzkerak afa-bete galtzen duan efijan, beso-bete galtzen du uzkutzak, erlijioak".

Gogoan izan biaf giñuzke, euzkotaf danok, gizon oafgari abek ematen dizkiguten ain onu edo konseju ikasgafijak eta ezgenduke astu beaf bertso edef onek erakusten digunaz ere :

"Euzkeldun jayo giñan
euzkotafak gera;
il-aftian euzkotaf
beti izango gera.
Abestu, ba, dezagun
guziyok batera:
¡Gora ta gora, beti,
Euzkadi ta euzkera!"

Baña... ¡au lana! Enbeita'k beste izneuftu mingafi onetan adierazten diguna dakusgu geyenean:

"Sasiyak softzen dir
soro edefetan,
nekazari alpefak
ba'dabiz euretan;
ezi onari, bafiz,
utzi ez ernetan...
irudi auxe dogu,
Euzkadi onetan".

¡Tamala!, ¡penagafija!, noski; baña egija ¡egi aundija!, zofitzafez.

Eta ori gertatu izan da gure artean, ori gertatu izan zayo Euzkadi gure Abefi gaxoari, beste bertso onetan Enbeita'k ain egoki oaftzen digun ziyo edo motibo onengatik:

"Batzuk dira zurijak,
azi onari bafiz
danak be bai-dituzte
alkafenak antzak:
ganetik lorak edef...
azpitik arantzak;
ikeratu lezake
oraingo aldantzak".

¿Ez alda egiya?

ZELETA.

!Iruña'ra!

¿Ikusten dozube ikusi? Pozik dagoz Iruña'ra eldu diralako. Ofein antzean bosteun autobus eldu ziran. Gaste alaya iñori kalte-egiten eztakijana. Edefto erakutsi eben euren lotsea ta abeftzaletasuna. Olako jentiakin ufun juan dafeke geure Abefija.

EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA